

HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN ALDAKETA ERRAZTEA ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA

GAIA	Hezkuntza
ECTS/ORDUAK	150 ORDU
EGUTEGIA	2025/02/24 - 2025/03/29
TOKIA	Bilbo <u>AS Fabrik</u>
HIZKUNTZA	Euskara - Gaztelania
MODALITATEA	Erdi-presentziala

Informazio gehiago
eta izen-ematea

AURKEZPENA

Hezkuntza-aldaketa puri-purian dago, eta «hezkuntza-berrikuntzaren udaberria» eta gisako mantrak ere entzuten dira. Era guztietako eskolak ari dira kontzeptuak birpentsatzeko fenomeno globalean murgiltzen; besteak beste, eskola, ikasteko eta irakasteko moduak, aldaketa-prozesuak, haien kudeaketa, lidergoa eta rola, ikaskuntza-komunitateen eta ikasten duten erakundeen auzia birplanteatzeko asmoz. Aldaketa prozesuak konplexuak izaten dira, eta beharrezkoa da prozesuok hobeki ulertzen lagunduko diguten tresnak eskuratzea, konplexutasun horretatik abiatuta hezkuntzacomunitateentzako erantzun esanguratsuak eraikitzeke.

Modulua esperientzien analisian oinarrituko dugu, eta askotariko testuinguruetako hezkuntza-aldaketa eraldatzaileari buruzko kontakizunak entzuteko aukera izango dugu. Azken batean, hezkuntzainstituzioaren aldaketa-prozesuaren gakoetan murgiltzea da helburua, kontuan izanda halako prozesuen oinarrian egon daitekeen tresnarik boteretsuenaren bitartez eraikitzen dela aldaketa hori, hots, lantaldeen errazte estrategikoaren bitartez.

HELBURUAK

1. Aldaketari buruz **hausnartzea** egituratik, lidergotik, irakasleek kontzientzia hartzetik eta ikasgelako praktika aldatzetik abiatuta.
2. Hezkuntza-instituzioaren aldaketa-prozesuaren gakoetan **sakontzea** esperientzien analisitik abiatuta.
3. Berrikuntzara hurbiltzeko saiakera experimental bat **egitea** ikastetxe baterako berrikuntza-prototipo bat eraikiz.
4. Lantaldeen errazte estrategikoa **txertatzea** hezkuntza-berrikuntzarako prozesu bati maila sistemikoan eusteko funtsezko tresna gisa.
5. Aldaketa-prozesu bati epe luzean eusteko estrategiak **diseinatzea**.

NORI ZUZENDUA

- Derrigorrezko Hezkuntzako eta Derrigorrezkoa ez den Hezkuntzako Ikastetxeetako **zuzendaritzaz, koordinazioaz eta aldaketa-prozesuez arduratzen diren pertsonak.**
- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitateetako **irakasleak.**
- **Ikasketa informaleko arloetan** zuzendaritza, koordinazioa eta aldaketa-prozesuak dituzten pertsonak.

PROGRAMA

Bezkontza-instituzioaren aldaketak

Ulertzea zer den XXI. mendeko eskola, zer erronka dituen aurrez aurre, zer behar dituzten lantaldeek erronka horiei heltzeko, zer gaitasun behar dituen XXI. mendeko eskolak gizarteari erantzuteko.

Norantz doa berrikuntza? Bere ibilbide guztian zehar, eskolak ez dio eraldatzeari utzi, eta, azkenaldian, aurrez aurre dituen aldaketak hain azkar doazenez, zalantzan jarri da ea ba ote duen horretarako gaitasunik eta arintasunik. Zer zentzu du berrikuntzak? Zer elementuri erreparatu behar die? Zer beharri erantzun behar zaie testuinguru bakoitzean?

Helburua ikastetxea aldaketarako unitate gisa ikustea da; nola bideratu eraldaketa-prozesua sistema honen konplexutasuna kontuan izanda, ahots guztiak aintzat hartuta eta errazterako tresna egokiak erabilita.

METODOLOGIA

Modalitate hibridoa: online + workshop presentzialak

Online

- Banaka eta taldean egin beharreko lanak Mondragon Unibertsitateko plataforma akademikoan.

Aurrez aurrekoa

- Bi eguneko 2 workshop: 12 ordu.
- Egun bateko workshop bat: 6 ordu.
- Saio sinkronoak: 5 ordu eta erdikoak.
- Proiektuen prototipoaren jarraipena: 3 ordu proiektu/parte-hartzaile bakoitzeko.

Metodologia

Moduluaren ikuspegia **esperientziazkoa eta esperimental**a da, zure bizipenak emango dituzu, lan etnografiko bat egingo duzu, hainbat irakurketa egingo dituzu eta, ikasitako guztiarekin, ikastetxe baterako berrikuntzaren prototipo bat eraikiko duzu. Lan hau da modulu honen antolaketaren ardatza, eta funtsezko lau urrats landuko dituzu:

Lan etnografikoa.

Berrikuntzara esperientzia-hurbilketa bat egitea proposatzen dizugu. Horretarako, zure eskola-historia gogoratuko duzu, eta lan etnografiko bat egingo duzu, hezkuntza-berrikuntzari buruzko kartografia bat egiteko (ez bakarrik).

Berrikuntzaren zuzendaritza.

Hainbat input teoriko jasoko dituzu, berrikuntza zer den eta zerekin lotzen den hausnartzeko, ikerketa txiki batetik eta proposatutako irakurketen eta analisisien hausnarketa kritikotik abiatuta, «**berrikuntzaren hiztegi akademikoari**» forma emateko eta berrikuntza definitzeko zure argumentarioa eraikitzeko.

Berrikuntza motak.

Astero input praktiko «hotzak» eta «beroak» jasoko dituzu, eta horietatik abiatuta «**hezkuntza berризtatzeko hiztegi apokrifo**» eraikiko duzu.

Berrikuntza guztietan daude ezkutuko hitzak, bihozkadak, gorputzaren egoerak, intuizioak... Horri guztiari inputs «**beroa**» deitu diogu.

Gainera, testigantza «**hotzak**» ere egongo dira (aldaketak zer norabide hartzen duen, metodologiaren aldaketa, teknologiak sartzea, ebaluazioa...).

Hezkuntza berризtatzeko prototipoa.

Azkenik, berrikuntzarako **hurbilketa esperimental**a egingo duzu. Ikastetxe baterako berrikuntza-prototipo bat eraiki nahi da, eta, horretarako, bi hiztegiak erabili beharko dituzu.

Lana batzuetan taldean egingo da, eta beste batzuetan, banaka. Batzuetan, talde orokorrean lan egingo dugu, elkarrekin; beste batzuetan, talde txikiagoetan; eta, beste batzuetan, banaka lan egingo dugu.

MATRIKULA

Izena emateko, bidali [eskaera-orri](mailto:ieskaera-orri@mondragon.edu) hau idazkaritza akademikora.

- ielustondo@mondragon.edu

Fundaeren bitartez, %100eko hobaria jaso daiteke.

ERAKUNDEA

[TeamLabs](#) ikaskuntza laborategiarekin elkarlanean diseinatutako ikastaroa.

FINANTZIAZIO ITURRIAK

Ikastaro honetan, FUNDAEren bitartez, % 100eko hobaria jaso daiteke.



IRTEERAKO PROFILA

Sendotzen diren trebetasunak

Prestakuntza-ekintza ikastaro hau amaitzean, parte-hartzaileek honako hauek egiteko gai izango dira:

- **Ezagutzea** aldaketa-prozesu batean kontuan hartu behar diren eraldaketa garrantzitsuak.
- **Gidatzea** aldaketa-prozesuak, taldeen erraztasun estrategikoaren bidez.
- **Ulertzea** aldaketak egiten dituzten ekipoen ziurgabetasuna eta horri eustea.
- **Diseinatzea** prototipoak pentsamendu plastiko, sortzaile, bitxi eta kritikotik abiatuta.
- **Aplikatzeko** analisi inductibo eta deductiboen praktikak.
- **Diseinatzea** taldeentzako proiektu berritzaileak.
- **Finkatzea** kompetentzia digitalak.
- **Komunikatzea** Ideiak modu asertiboan.

PREZIOA

Prezioa pertsonako: 1.900 €

Prezioa ikastetxe edo federazio bakar batean egiten bada: 47.500 €. (% 10eko deskontua: 42.750 €)

Programa hau FUNDAEren bidez hobaria jaso dezake.

INFORMAZIO GEHIAGO

HARREMANETARAKO PERTSONA

Julene Gorrotxategi

+34 600 027 020

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/unibertsitate-espezializazio-diploma-hezkuntza-erakundeetan-aldaketa-erraztea>